


2009 Slalom-eko Gipuzkoako Txapelketaren Araudia



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

2009 SLALOM-EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAREN ARAUDIA

1. Artikulua- ANTOLAKETA

- 1.1.** Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioak 2009. urterako Slalom-eko Gipuzkoako Txapelketa eta Slalom-eko Junior mailako Gipuzkoako Saria ezartzen ditu.
- 1.2.** Araudi aplikagarriak, lehentasun hurrenkeraren arabera, ondorengoak izango dira:
 - a)** C.D.I. (aplikatzea badagokio).
 - b)** 2009ko Txapelketa, Kopa, eta Gipuzkoako Sariei dagokionean Komunak diren Aginduak.
 - c)** 2009 Slalom-eko Gipuzkoako Txapelketaren Araudi Nagusia.
 - d)** Probari dagokion Araudi Berezia.

2. Artikulua- AURKEZTEN DIRENAK

- 2.1.** 1. artikuluan zehaztutako Mendiko Gidarien Gipuzkoako Txapelketa eta Sariak F.V.A.-k emandako eta R.F.E.A.-k Homologatutako gipuzkoar lizentziak dituzten kirolzaleentzat eskuragarri egongo dira. Era berean parte hartu ahal izango dute, baina ez dute punturik lortuko eta ez dute puntuakatarik blokeatuko, bere A.D.N.-k homologatutako eta aurten indarrean dauden beste baimen batzuk dituzten kirolzale orok.
- 2.2.** Lehiakidearen baimena nahitaezkoa izango da.
- 2.3.** Slalom-eko Gidarien Junior mailako Gipuzkoako Saria: 1986ko Urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako gidariak zein Txapelketa ala Lehen mailako Gipuzkoako Kopa, Sari ala Challenge-ren nahiz maila handiagoren bateko lehenengo 3ren artean sailkatuak izan ez baitira.

3. Artikulua- ONARTUTAKO IBILGAILUAK

- 3.1.** Turismo mota oro onartuko dira homologatuak izan ala ez, baina ondorengo xedapenak bete beharko dituzte:
 - a)** Dagokien segurtasun-uhala eta kasko homologatuarekin hornituta egongo dira.
 - b)** Ibilgailuaren barnean objektu solterik ez dute eramango, su-itzalgailu bat izan ezik, hau behar bezala kokatuta badago.
 - c)** Bolantearen aroan ez da onartuko heldulekurik instalatzea, ezta esku-balaztaren palankaren luzapenik ere.
 - d)** Halaber debekatuta dago karrozerian nahiz elementu mekaniko nagusienetan aldaketak burutzea, zeinek ibilgailuaren portaeran aldaketa suposatuta ahal bailukete.
 - e)** Debekatuta dago barnean tanga modura gasolina-ontziak eramatea.
 - f)** Korrontea eteteko deskonektatzeko gailu bat nahitaezkoa izango da, kalean matrikulatutako ibilgailuetan izan ezik.
 - g)** Debekatuta dago aurreko ala atzeko balaztatze-sistema ezabatzea.
 - h)** Barnea, eserlekuak, moketak, etab. hustu ahal izango dira, betiere atal zorrotzik geratzen ez bada.
 - i)** Bateria behar bezala ziurtatuta edukitzea nahitaezkoa izango da.
 - j)** Haizetakoaren behar bezalako funtzionamendua nahitaezkoa izango da.
 - k)** 2008an segurtasun-arkua gomendagarria izango da.
- 3.2.** Pneumatiko mota librea izango da.

3.3. Organizazioak bere irizpidearen arabera proba bakoitzerako inskribatutakoen kopurua mugatu ahal izango du, betiere Txapelketako lehenengo 10 sailkatuentzako 10 inskripzioak errespetatuz.

3.4. Inskripzioen amaiera Rally-en Txapelketan bezala burutuko da.

3.5. MOTAK:

Nagusia	Scratch
1. Maila	1.600 cc arte
2. Maila	1.600 cc baino gehiago
3. Maila	Atzeko Trakzioa
4. Maila	Kart Cross

4. Artikulua- INSKRIPZIOKO ESKUBIDEAK ETA SARIAK

4.1. Inskripzioko eskubideak: Inskripzioko eskubideen gehieneko bat ezarriko da, dataren egunerako aseguruaren prezioari dagokion Organizaziok kontratatutako publizitatea onartzuz, 3.4 Artikulua errespetatuz, aurkako kasuan 15 € erantsiko dira.

4.2. Proba bakoitzerako ezarritako gutxieneko prezioak ondorengoak dira:

SCRATCH NAGUSIA 3 Sari

1. Saria
2. Saria
3. Saria

MAILA BAKOITZEKO 3 Sari

1. Saria
2. Saria
3. Saria

JUNIOR 3 Sari

1. Saria
2. Saria
3. Saria

5. Artikulua- PROBEN GARAPENA

5.1.a) Ibilbide bat trazatzea, lastozko bala, ate, estalki, bolo ala zintekin. Asfalto eta lurrezko azalera mistoaren gainean egitea gomendatzen da.

5.1.b) Eraspeni dagokionean penalizazioak 5 segundokoak izango dira, eta 10 segundokoak trazatu oker ala zirkuitutik irteteei dagokionean.

5.1.c) Oztopo bat nahita saltatzea, 30 punturekin penalizatuko da. Txanda berdinean jarrera hau errepikatzen bada, txanda baliogabearekin penalizatuko da.

5.2. NAHITAEZKO ARAUAK:

5.2.a) Zirkuituak 6 metroko gutxieneko zabalera izango du eta oztopoen arteko gutxieneko distantzia 10 metrokoa izango da. Antolatzaileek 60 Km/orduko ez gainditzea gomendatzen dute.

5.2.b) Txandak, gutxienez, bi izango dira, horietako denborarik hoberekin geratuz.

5.2.c) Puntuagarria den ala ez den edonolako probako partaide guztiek gidabaimena izatea nahitaezkoa izango da, honen betearaztearen arduradunak antolatzaileak eta probako jarduneko ofizialak izanik

5.2.d) Partaide ororentzako proban zehar homologatutako kaskoa eta segurtasun-uhala erabiltzea nahitaezkoa izango da.

5.2.e) Debekatuta dago probaren garapenean zehar bidaiaririk eramatea.

6. Artikulua- PARTAIDETZA

6.1. partaideek ibilgailu bakarrarekin hartu ahal izango dute parte, txanda bat amaitzen denean ibilgailua aldatu ezin izanik.

6.2. Ibilgailu berdinerako gehienez bi pilotu onartzen dira.

7. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIAK

7.1. Puntuagarria izango da Gipuzkoan ospatzen den proba oro, zeinek araudi honekin ados egoteaz gainera Automobilgintzako Gipuzkoako Federazioaren baimenarekin kontatuko baitute.

7.2. Izaera itxia duten probak (gonbidapenagatik, sozialak edo markei dagozkienak), ez dira puntuagarriak izango.

- 7.3.** Pertsekuzio erako probei dagokionean, bere sailkapena denboren arabera ezartzen duten haiek soilik izango dira puntuagarriak, zuzeneko ezabaketakoak puntuagarriak izango ez direlarik.

8. Artikulua- PUNTUAKETAK

- 8.1.** Puntuak ondorengo baremoari jarraiki esleituko dira:

Scratch Sailkapen Nagusia:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º	7º	8º	9º	10º
Puntuak	20	15	12	10	8	6	4	3	2	1

Mailen araberako sailkapena:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º
Puntuak	12	10	8	6	4	2

Scratch Sailkapenean lortutako postuaren arabera lortutako puntuak erantsi beharko dira gehi mailari dagozkionak.

- 8.2.** Gidarien Junior mailako Gipuzkoako Sarirako, Sari honetako partaideek soilik eraturako sailkapena burututakoan, puntuak jarraian adierazten den bezala esleituko dira:

Scratch Sailkapen Nagusia:

Postua	1º	2º	3º	4º	5º	6º	7º	8º	9º	10º
Puntuak	20	15	12	10	8	6	4	3	2	1

9. Artikulua- SARIAK

- 9.1.** Automobilgintzako Euskal Federazioak scratch-ari 3 Sari ezartzen dizkio, Junior mailako 3 Sari eta maila bakoitzeko 3 Sari ezartzen ditu.

- 9.2.** Mailak ondorengoak dira:

1. MAILA- 1.600 cc-raino*
2. MAILA- 1.600 cc baino gehiago
3. MAILA- atzeko trakzioa
4. MAILA- Kart-Cross

(*) Autoblokantea duten 1. Mailako ibilgailuak, 2. Mailara pasatzen dira

10. Artikulua- ATXIKI BEHARREKO EMAITZAK

- 10.1.** Atxiki beharreko emaitzen kopurua opatutako proba guztiak izango dira.
- 10.2.** 2 proba puntuagarri ospatzen ez badira, Txapelketa hau ezeztatu egingo litzateke.
- 10.2.** Amaiera-sailkapenera sarbidea izateko nahitaezkoa izango da, gutxienez, ospatutako proben % 60an parte hartu izana. Hamartarrak beti gorantz biribilduko dira.

11. Artikulua- BERDINKETAK

Lehiaketaren amaieran berdinketa gertatuko balitz hau Rally-etako Txapelketan bezala erabakiko litzateke.

12. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIAK

- 12.1.** Slalom-eko Gipuzkoa Txapelketarako proba puntuagarriak ondorengoak izango dira:

29 Martxoa	Irungo Slaloma
30 Abuztua	Zestoako Slaloma
20 Iraila	Zizurkilgo Slaloma
	Zarauzko Slaloma